

EuskAlema, 2009ko maiatzaren 29an

**Gaia: Bertolt Brecht, Der kaukasische Kreidekreis – Kaukasiar kreazko borobila, Itxaro Bordak itzulita (Euskarazko testuaren edizioa: 2006, Artezblai)**

Baionako AEKko egoitzan bildu ginen Naroa, Nagore, Ibon, Feliciano, Isabel, Edorta, Elena, Petra, Xavier eta Itxaro Borda.

Gai horren hautaketa hainbat motibo izan zuen. Alde batetik, orain arteko bileretan, EuskAlema Elkarteak ez du inoiz antzerki itzulpen generoa landu. Beste aldetik, Brecht idazle garrantzitsuak ere merezi zuen dedikazio berezi bat gure ustez. Hirugarren arrazoia izan da, gure bilerak ‚biltariak izan arren, ez ginen inoiz Iparraldean egon eta jakin nahi genuen – 2008an Gasteizen antolatu genuen Euskara-Alemana itzultzaile mintegia Itxaro ezagutu eta gero – hor alemana ikasten edo itzultzen duten kide gehiago diren.

Azken helburu honi buruz esan behar da, Itxaroz aparte ez dela beste inor etorri, Iparraldetik eta berak kontatu zigunez, Iparralden oro har interes gutxi dagoela alemanari dagokionez eta gaur egun ere konfliktiboa da alemanarekin dagoen harremana, okupazioarekin lotuta. Itxaro hain zuzen hasi zen alemana ikasten, bere aita hil ondoren, hori baino lehen ez zuen ‚baimenduta‘ sentitu, aitzak alemanen okupazio garaiko hainbat pasarte mingarriak kontatu zizkiolako.

Hala ere, beti interesatu zitzaion Itxarori alemanezko hainbat egile, bereziki Hannah Arendt eta Bertolt Brecht eta beraien obrak irakurri eta antzerki-lanak (Ama Kuraia, Galileo) ikusi zituen, frantsesezko itzulpenetan.

„Kaukasiar kreazko borobila” itzultzeko proposamena iritsi zitzaion Théâtre des Chimereseko zuzendariaren aldetik. Antzerki konpainia honek dimentsio handiko antzezlan bat antzeztu nahi zuen, ‚espektakulu’ bat, eta obraren gai nagusia „Norena da lurrea?” aproposa irudi zitzaien, gaur egun ere bai Euskal Herrian bai mundu osoan gaurkotasun handia duelako.

Itxarok garai horretan ez zekien alemana baina onartu zuen obra frantsesetik itzultzea, konpainiaren zuzendariak frantsesezko itzulpena jatorrizko testuarekin oso gertu dagoela esan ziolako. Aktore asko bere aldetik ez zekiten euskara eta bi urtetan zehar landu zuten obraren prestakuntza testua euskaraz ondo ahoskatzeko.

Itxarok bere aldetik, testua itzuli zuenean, bereziki garrantzia eman zuen ahozketasunari. Doinua eta ulergarritasuna. Testua antzeztuta entzun zuenean, hitzak batzutan ez zitzaizkion apropos iruditu, baina nahiz eta hasiera batean gainbegiratze bat egiteko asmoa izan zuten, azkenean ez zuten denbora izan.

Obra hasiera batean Frantziako hainbat hirietan eman zuten (Bordele, Tolosa,...) eta gero Baionan (hiru aldiz) eta Baigorriin. Hegoaldean ere eman zuten, Azpeitian eta Donostian hain zuzen ere, eta Donostiako Antzerki Saria lortu zuen. Frantzian eta Iparraldean eman zutenean, frantsesezko testua eman zuten bi pantaila handietan, eszenatoki alboan, Hegoaldean berriz, gaztelaniazkoa.

Brecht-en interes bereziari dagokionez, Brecht aldi berean oso modernoa eta tradizionala izatean, eta epikotasunean datzala esaten du Itxarok.

Aipatzekoa da baita ere, obrako kantu batzuk Euskal Herriko bertso tradizionalen moduan eginda direla itzulpenean eta beste kantu batzuen musika Pascal Gaignek sortu zuela, bereziki obra honetarako.

Oso bilera interesgarria izan da denontzat eta Itxarok modu bizi eta erakargarriz hitz egin digu inoiz landu ez genuen gai horren berezitasunaz eta antzerkiaren aberastasunaz. Oso pozgarria da, Brechten obra bat euskarara itzuli eta antzeztu egin dela eta pena eman zigun, obra hori bere garaian ikusi ez izatea. Espero dugu egun batean berriro emango dela eta aukera izango dugula, eta bitartean eskerrik asko Itxarori, gonbidapena onartzeagatik eta Brecht euskarazteko lanagatik.

---

Itzulpen azterketari dagokiona:

- Ortografiako hainbat akats (guk zabaldutako euskarazko bertsiokoak) eskaneatzekoan sortu dira. Barkatu!

- Fonetika: Izen propioen idazkera batzutan frantsesezko fonetikatik euskaratuta dira. Hor hobe izango zen, jatorrizko izen propioak euskaratzea ad. Gruxe, ez Groucha.

- Erabilera laguna / kamarada. Batzuetan bat eta batzuetan bestea erabiltzen da, errepikapen gehiegi ez egiteagatik. Hala, Brecht denbora osoan Genosse hitza erabiltzen du eta hori bai bere garrantzia du, Sobiet Batasunaren garaiko giza harremanak islatzeko.

- Traktoristin / Traktore gidatzaile gaztea – nahiz eta euskaraz generoa ez eduki, ondo izango zen generoaren aditzailearen bat asmatzea (Traktore gidatzaile emakume gaztea...), kolzhos horretan lanbide hauetan (baita agronoma ere) emakumeak aritzen zirela erakusteko.

Kantaria (34. orr.) – euskarazkoan bertso moduan eginda dago, kantatzeko, baina originalean kantariak hitz egiten du, bestela beti agindua dago jarrita (“singt”). Hala ere, oso ondo geratzen da bertsoa.

Groucha (kantuz) (34. orr.) – jatorrizkoan errimak ditu, nahiz eta nahiko libreak izan (Brechten moduan). Itzulpenean ez dago errimarik, baina ondo geratzen da.

Die Leute hier glauben, wir haben unser Geld *mit dem Arsch* verdient. (S. 14, alemanezkoan). Hemengotarrei *izterrez-izter* dirua irabazi dugula iruditzen zaie.

Esaldia ez da guztiz argia, baina mit dem Arsch verdient litekeena da ‘auf dem Arsch sitzend’ esan nahi duela, ezer ez eginez alegia.

Den *Brokatmantel* betrachtend, in den das Kind gewickelt ist. (S.14, alemanezkoan). Haurra troxatzen duen urrez apaindutako *zetazko aterkia* beha. Brokatmantel ez da zetazko aterkia.

Ene Persiako ozkiak... Ozkiak = Xuberoako hitza eta Bizkaiatzko aintzinako hitza. Adibide gisa, hainbat Xuberoko hitzak agertzen dira – oso ondo egokitzen dira Georgiako landa giroari.

Hans-Joachimen komentarioei dagokizkion erantzun batzuk:

Emaztea = emakumea iparraldean

Etxalde ez da Meierei, baina Meiereik euskaraz ez dauka itzulpenik (Gurelesa edo Südmilch esaten ez badugu...)

Proposatu itzulpena ziurasko frantsesatik zetorren (proposé...). Egokiago izango litzateke “eskatu”.

Harria eroriko da – Sprengen des Felsens hobe: harria leherrarazi zuten

Antzerkia landu dugu harekin – unter seiner Leitung – berak zuzenduko du antzerkia

Adjutant: guda-mutila

---

Txostenaren egilea: Petra Elser